




Jon-ek azazkalak margotzea zuen gustoko,
eskolan barre egin zioten arte.
Egun hartan bertan, bere aitak ere
azazkalak margotzea erabaki zuen.



GORA KOLORETAKO AZAZKALAK!



Alicia Acosta & Luis Amavisca · Gusti



GORA KOLORETAKO AZAZKALAK!



Alicia Acosta
Luis Amavisca
Gusti-k ilustratua

Liburu hau benetako gertakarietan oinarrituta dago.



Gora koloretako azazkalak!
Egalité Bilduma

© testuarena: Alicia Acosta eta Luis Amavisca, 2018
© irudiena: Gusti, 2018
© argitalpenarena: NubeOcho, 2018
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2025
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *¡Viva las uñas de colores!*

Lehen argitaraldia: Urtarrila, 2026
ISBN: 979-13-88132-33-9
Legezko Gordailua: M-1866-2026

Portugalen inprimatua.


Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.



GORA KOLORETAKO AZAZKALAK!

ALICIA ACOSTA
LUIS AMAVISCA

ILUSTRADO POR GUSTI



Jon-i izugarri gustatzen zaio azazkalak margotzea,
batez ere kolore alaiez, **bera bezain alaiez.**

Margotzen dituenean, bere eskuak zein dibertigarri
eta koloretsuak geratzen diren ikustea maite du.





Zergatik margotzen ditu Jonek azazkalak?
Erraza da, ez du inolako misteriorik:

gogoko duelako.



Arratsalde askotan, etxekolanak amaitutakoan, Jonek bere koloreak eskatzen dizkio amari. Amak asko ditu, **kaxa bete kolore!** Oso politak dira. Amari ere gustatzen zaio, irribarre egiten dio beti, musu bat eman, eta koloreak ematen dizkio.



Bere lagun Margaritak ere kolore zoragarriak ditu.
Ahal duten guztietan **elkarrekin margotzen**
dituzte azazkalak.

—Berdea eta marroia? Oso tristeak!

—Horia eta arrosa? Eeeez!

—Orlegia eta laranja!

Horiek bai ondo elkarrekin!



Egun batez, Jonek bihotza bezain gorria den kolore ederrez
margotuta zituen azazkalak, baina eskolara heldu bezain pronto,
bi haurrek bere aurka egin zuten:

—Azazkalak margotzea nesken kontua da.

—Neska bat zara! Neska bat zara!

